



## SARE SOZIALAK ETA INSTAGRAM

---

**2021eko urtarrila**

## **SARE SOZIALAK ETA INSTAGRAM**

---

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei ikus-entzunezko edukien inguruko hainbat gairi buruz galdetu diegu: azkena ikusi duten ikus-entzunezkoari buruz, sare sozialen erabilerari buruz eta zehazki Instagrami buruz. Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

### **1. Ohar metodologikoak**


Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkorrean eta maiztasunez erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen -Informazio eta Komunikazio Teknologien- erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. 2020-2021 ikasturtetik aurrera UPV/EHUz gain, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak gehitu dira. Gaur egun, Applika+ izenarekin martxan dagoen proiektuan (US202/21) UPV/EHU, Tabakalera, EITB eta Kulturaren Euskal Behatokia ari dira lanean.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2021eko urtarrilaren 25etik 28ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa da ikus-entzunezkoen kontsumoari eta sare sozialen erabilerari buruzkoa, zehazki Instagramen sakonduta. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 905 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

## 2. Azkena ikusitako edukia

Edukia ikusteko erabilitako euskarriari dagokionez, etxeko telebista (%34,3), ordenagailu eramangarria (%31,4) eta telefono mugikorra (%24,9) izan dira erabilienak.


### 1. Irudia – Zein aparatu bidez ikusi duzu?



Iturria: Ikusiker Applika +

Hornitzaileari dagokionez, hiru aukera dira nagusi: Netflix (% 25,9), telebista kanalak (%17,9) eta Youtube (%17,1). Segidan, Amazon Prime dator, kasuen %8,5ean aipatua, eta ondoren, interneteko webguneak (%6,3) eta Nahieran -A la carta- (%5,4) zerbitzuak.


### 2. Irudia – Aipatu duzun bideo ala programa hori non ikusi duzu?



Iturria: Ikusiker Applika +

Hizkuntzari dagokionez, ikusitako edukiaren audioa gaztelaniaz izan da kasuen %71n, eta beste %18,1ean, ingelesez. Hirugarren hizkuntza aipatuena euskara izan da: %6,1. Edukia beste hizkuntza batzuetan entzun dutenak, berriz, %4,9 izan dira, kontsumoa euskaraz egin dutenen pareko.

### 3. Irudia – Ikusitakoaren audioa zein hizkuntzan dago




Iturria: Ikusiker Applika +

### 3. Sare sozialen erabilera

Inkesta erantzundako ia guztiek (%99,7k) sare sozialak erabiltzen dituzte. Horrela, inkestatu bakoitzari eskatu zaio gehien erabiltzen dituen hiru sare sozial aukeratzeko.

### 4. Irudia – Gehien erabilitako sare sozialak (aukera anitza)




Iturria: Ikusiker Applika +

### 3. Instagram

#### 3.1. Zertarako eta nola erabiltzen den

Segidan, erabilera handienetakoa duen sare sozial bati buruzko galderak egin dira: Instagrami buruzkoak.

#### 5. Irudia – Instagramen kasuan, esan mesedez, ea erabiltzen duzun sare sozial hori




Iturria: Ikusiker Applika +

Adinak asko eragiten du Instagram edukitzean edo ez edukitzean, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen baita. 1999an edo aurretik jaio direnen artean, %18,6k ez dauka konturik, 2000n jaiotakoen artean, %8,3k; 2001ean, %3,9k eta 2002an edo beranduago jaio direnen artean, %2,0k.

Aplikazio honek eskaintzen dituen aukera batzuk aipatu dira segidan, eta horiek zenbatetan erabiltzen dituzten galdetu da. Erantzun dutenen artean, gehien erabiltzen direnak, story-ak dira. Story-ak “batzuetan” edo “askotan” erabiltzen dituztenak %69,9 dira; feed-ak %29,1; reel-ak %13,0; Instagram TV %7,3; Live-ak %3,7 eta bestelako aukerak, %15,4.

## 6. Irudia – Instagrameko aukera hauetatik zeintzuk erabiltzen dituzu?




Iturria: Ikusiker Aplikia +

Antzera, Instagram zertarako erabiltzen den ere galdetu da. Erantzun horietan indar handiena izan duen helburua “denborapasa” da: %73,4k “askotan” erabiltzen du asmo horrekin. Segidan, lagunekin lotutako elementuak daude: “lagunekin eta ezagunekin harremanetan egoteko”-ri dagokionez %58,3k adierazi du “askotan” erabiltzen duela, eta “nire lagunekin hor elkartzeko” aukera %52,4k hartu du. %58,2k esan du “gauza entretenigarriak eta barregarriak” ikusteko darabilela.

Herenak “kotileoan ibiltzeko” (%36,1) eta “bideoak eta argazkiak partekatzeko” (%33,4) erantzunak hautatu ditu. %23,1ek, berriz, “informatuta egoteko” erabiltzen du eta %11,9k “egiten ditudan gauzak erakusteko” erantzuna hautatu du.


## 7. Irudia – Zertarako erabiltzen duzu Instagram?



Iturria: Ikusiker Aplikia +


Gehien jarraitzen diren profil moten artean, lagunen perfilak daude, inkestaturen %86,8k adierazi baitu bere lagunen perfilak jarraitzen dituela. Segidan, musikarekin lotutakoak datoz (%42,2), celebrity-ak (%36,3), kirolarekin lotutakoak (%30,2) eta oso gertu “argazkilariak, zinea, kultura...” (%29,9) zein “moda” (%26,4). Baxuago gelditzen diren erantzunak “gamerrak” (%10,8) eta “makillajea” (%9,0) dira.

8. Irdia – Gehien jarraitzen dituzun profilak (aukera anitza)



Azkenik, programa batzuekin lotutako kontuak aipatu zaizkie, ea jarraitzen dituzten edo ez jakiteko. Aipatutakoen artean, inkestaturen ia erdiek (%50,8) jarraitzen dute “La resistencia”. Segidan, “El conquistador del Caribe” (%42,9) eta “La isla de las tentaciones” (%34,1) datoz. Hortik aurrerakoetan, jarraitzaile kopurua askoz baxuagoa da: %7,8k jarraitzen du MasterChef Junior eta % 3,8k Baserria.


9. Irdia – Instagramen jarraitzen diren kontuak (aukera anitza)



Iturria: Ikusiker Applika +

3.2. Instagramen pasatzen den denbora


10. Irudia – Egunean zenbat aldiz konektatzen zara Instagramera?



Iturria: Ikusiker Applika +

Sare sozialera sartzen diren bakoitzean, %41,3k hamar minutu baino gehiago pasatzen ditu bertan eta %36,5ek, 5-10 minutu bitartean. Bost minutu edo gutxiago egoten da % 22,3.

11. Irudia – Konektatzen zaren bakoitzean, zenbat denbora egoten zara?




Iturria: Ikusiker Applika +

Guztira egun normal batean Instagramen pasatzen duten denbora baloratzeko eskatuta, erdiak baino gehiagok (%54,6) ordubetik gora igarotzen duela esan du eta %16,6k bi ordutik gora erabiltzen duela. Beste puntan, ordu erditik behera igarotzen dutenak daude: % 9,7.

12. Irudia – Eta, guztira, egun normal batean, zenbat denbora egoten zara...






Iturria: Ikusiker Applika +

Ondoren, inkestatuei galdetu zaie ea Instagram aste barruan edo asteburuetan erabiltzen duten gehien. %43,3k adierazi du denbora berdintsua igarotzen duela Instagramen astegunetan zein aste bukaeretan. %56,7k, berriz, desberdintasunen bat nabaritzen du. %36,5ek dio aste bukaeretan denbora gehiago eskaintzen diola: horietatik % 29,9k Instagramen denbora “apur bat gehiago” igarotzen dutela dio eta %6,6k denbora “askoz gehiago” pasatzen duela. %20,1ek, berriz, esan du astegunetan gehiago erabiltzen dutela asteburuetan baino: %14,3k “apur bat gehiago” eta % 5,8k “askoz gehiago”.


### 13. Irudia – Noiz erabiltzen duzu gehiago Instagram astegunetan ala asteburuetan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Instagramean pasatzen duten denboraren inguruko balorazioa egiteko eskatuta, gehienek (%68,4) adierazten dute gutxiago erabili nahiko luketela. %30 inguruk dio konforme daudela gaur egungo erabilerarekin eta ia inork ez du adierazi gehiago erabili nahiko lukeenik (%1,6).

## 14. Irudia – Posible bazenu, Instagramen denbora...




Iturria: Ikusiker Aplikia +

## 3.3. Instagrametikiko iritzia

Inkesta bukatzeko, Instagrami buruzko adierazpen batzuk aurkeztu zaizkie eta horien inguruan posionatzeko eskatu. Adostasun handiena jaso duten bi adierazpenak Instagramari buruzko bi kritika dira: “Instagramen posturo gehiegi dago” (76,9ko indizea) eta “kontsumoa bultzatzen du Instagramek” (58,9ko indizea). “Gauza interesgarri asko ikusi eta ikasten direla Instagramen” adierazpenarekin %70,8 dago apur bat edo guztiz ados, eta horrekin lotuta, iritziak oso banatuta ikusten dira beste bi esalditan: “bizitza alaitu egiten du Instagramek” (%29,7 ados eta %25,6 kontra) eta “denbora galtzeko baino ez da Instagram” (%27,6 ados eta %44,1 kontra). Badirudi alde onak eta txarrak ikusten zaizkiola, eta sare sozialaren inguruko balorazioa eztabaidagai dela.

## 15. Irudia – Instagrami buruzko iritzia



Iturria: Ikusiker Aplikia +

Edozein kasutan, pandemia hasi denetik Instagramen erabilerak gora egin duela dirudi: erdiak baino gehiagok (%52,9) dio orain denbora gehiago pasatzen duela bertan, %27,2k antzeko jarraitzen duela adierazten du eta %19,9k gutxiago erabiltzen duela.